



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Unai Rementeria, Bizkaiko Ahaldun Nagusi aukeratua

Unai Rementeria Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos taldeko hautagaia aukeratu dabe gaur, eguaztenean, Bizkaiko Ahaldun Nagusi, Batzar Nagusietako 29 batzarkideren aldeko botoari esker, bere taldeko eta Socialistas Vascos taldeko batzarkideena, hain zuzen be. Josu Unanue EH Bilduko hautagaiak bere taldearen 11 botoak lortu ditu, eta Ahal Duguko 6 kideek eta PP-ko 4ek boto zuria emon dabe.

Lehenengo itzulian irabazi dan bozketaren ostean, Ana Otadui Batzar Nagusietako Presidente andreak, Foru Gobernuko arduradun nagusi izentau dau Unai Rementeria datozan lau urteetarako. Kargua itxi dauen Ahaldun Nagusiak aginte-makilea emon deutso Batzar Nagusietako Presidente andreari. Horren ostean, Batzar Nagusietako Mahaiak eta aukeratutako Ahaldun nagusiak, euren aurretik “mazukari” bi joiatzala, Batzar Etxearen kanpoaldera urten dabe. Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, Batzar Etxeko marketeriazko mahaiaren gainean egozan Foruen aurrean zin egin dau, Agirre Lehendakariak erabilitako zin egite tradizionala erabiliz: “Jainkoaren aurrean apalik Bizkai-lur gainean zutunik Asaba gomutaz Gernikako zuhaitzpean neure agindua ondo betetzea zin dagit”.

Otadui aginte-makilea emon deutso tenpletean Unai Rementeriari, eta beragaz batera Gernikako Arbolaren ondora joan da. “Zuganutzen dozun erantzukizuna ohorez eta zintzotasunez beteko dozula badakigu. Beraz, hartu egizu aginte-makila hau zure karguaren ezaugarritzat”, esan deutso Bizkaiko Batzarretako presidente andreak demokraziako bosgarren Ahaldun Nagusiari. Karguan, Jose Maria Makuaren, Jose Alberto Praderaren eta Josu Bergararen ostean egon den Jose Luis Bilbaoren lekua hartu dau.

Mikel Bilbao eta Leire Requero dantzariak, Angel Gondraren eta Pili Ruizen eta Mundakako txistulari taldearen txistuen soinuari jarraituz, agurra dantzatu dabe batzar aretoaren barruan.

FORU GOBERNUA

Aginte-makilea jaso ostean, Ahaldun Nagusiak bere gobernu taldearen barri emon dau. Taldea honeek eratuko dabe: Ibone Bengoetxea, Herri Administrazino eta Erakunde Harremanetako Diputatua; Jose Maria Iruarizaga, Ogasuneko Diputatua; Lorea Bilbao, Kultura eta Euskerako Diputatua; María Teresa Laespada, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko Diputatua; Vicente Reyes, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesioko Diputatua; Isabel Sánchez Robles, Gizarte Ekintzako Diputatua; Elena Unzueta, Iraunkortasun eta Ingurumeneko Diputatua; eta Imanol Pradales, Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Diputatua.

ESKU-HARTZEAK

Gaur goizez eta arratsaldez Gernikako Batzar Etxeko areto nagusian egin dan osoko bilkurea goizeko lehen orduan hasi da, hautagai bien esku-hartzeagaz: Unai Rementeria eta Josu Unanue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Rementeriak bakean hasten dan eta egiteko eta jokatzeko beste modu bategaz politikaren duintasuna berreskuratzeko konpromisoa daukan etapa barriaren hasiera aurkeztu dau. “Gaur atzera bueltarik ez daukan bidaia hasten dogu, Aldundi modernoagoa, hurbilagoa eta gardenagoa lortzeko. Aldaketarako bidaia”, adierazo dau.

Ahaldun Nagusia hautatzeko saioan, ekonomia berrindartzeko, kalidadeko enplegua sortzea bultzatzeko eta modu iraunkorrean eta jasangarrian hazteko erronka gogo osoz bereganatzen dauela adierazo dau. Jeltzaleak autortu dauenez, enplegua da Bizkaiko gizartearen erronka nagusia, eta Aldundiak, lanpostuak sortzeko aukerea emongo daben erabagiak lagundu, babestu eta erraztuko dituala azpimarratu dau. “Bizkaiak –azpimarratu dau– egonkortasuna eta ziurtasuna eskintzen ditu, gorabeheraz beteta dagoan ingurunearen aurrean. Bizkaia egonkortasuna da. Eta urte askotarako egonkortasuna izango da. Egonkortasun eta erakunde arloko lankidetzaren osoa eskintzen dodaz”.

Rementeriak iragarri dauenez, gobernu barriak, eukiei eta epeei jagokenez Aldundiaren ekimenak zehaztuko dituan legealdi plan zehaztua aurkeztuko dau Batzar Nagusien aurrean. Plan horrek ebaluazio bat izango dau urtero eta beste bat legealdiaren bukaeran.

Josu Unanue EH Bilduko hautagaiak 11 legebiltzarkideren aldeko botoa lortu dau, eta bere ekintza politikoa egituratuko daben puntuak aurkeztu ditu osoko bilkuraren aurrean: “Gizarte kohesinoa lehentasunezko helburu gisa, gizarte politikak tresna gisa, fiskaltasuna gizarte konpromiso horren espilu gisa, eta erabagiteko gaitasuna gure ekintzaren berme gisa”. Horretarako, esan dauenez, EH Bilduk lau ardatz, ekintzarako lau oinarri, ezarten ditu: “gizarte, enplegu eta garapen politika, eredu fiskala eta gardentasuna eta partaidetzea”.

Unanuek, zerbitzu publikoen azpi-kontratazio handiari amaierara emateko ordua dala defendidu dau. Bere eretziz Bizkaiko Aldundiak politika hori errotan dau aurrera orain arte. “Hori da kalidadezko zerbitzuak eta sektore horretako beharinentzako lan baldintza duinak bermatzeko modu bakarra”.

EH Bilduko hautagaiak adierazo dauenez, “ez dogu ezelango arazorik izango daukien garrantzia dala eta Bizkairako egokia dala erakusten daben gaiak herri kontsulten bitartez lantzeko”.

Carlos Totorika Talde Sozialistaren bozeroaleak, bere aldetik, hautagai jeltzaleari emondako laguntzea azaltzeko orduan, “hainbeste alderdi, ñabardura eta berezitasun dituan gaur egungoa moduko gizarte batean, gure eretziz beharrezkoa da planteamendu itxietatik eta absolutuetatik iges egitea, bakean eta askatasunean oinarritutako akordio demokratikoa lortzeko”. “Sozialisten helburua gaurtik aurrera Bizkaian etapa politiko barria benetan zabaltzea da. Krisi ekonomikoa gainditzea eta enplegua indartzea errealitate bilakatzen eta eskualde mailako oreka handiagoa eta eskumenen erabateko garapen eraginkorra lortzen lagunduko dauen etapa”, adierazo dau.

Legealdi honetan Batzarretan lehen aldiz parte hartuko dauen Ahal Dugu taldearen eretziz, Bizkaiak gardentasun arazoa dauka. Neskutz Rodríguez bozeroaleak proponidu dauenez, obra proiektu publiko bakotzak, aurrekontuaz gain, burutzapenari buruzko dokumentua be aurkeztu beharko leuke, bertan obraren azken kostua jasoz, obrari lotutako proiektu osagarriak barne. Rodríguezek esan dauenez “gardentasuna, gobernariak herritarren azterketaren menpe egotea da”. Ganera, datozan lau urteetan publikoaren aldeko apustua bikoiztu eta danon ongizatera bideratutako eredu ekonomikoa bultzatuko dabe”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PP taldeak, Javier Ruiz Batzar Nagusietako bozeroale barriaren ahotik, politika fiskal pizgarriak apliketako ordua dala esan dau. Holan, autogobernuak eskintzen dituan tresnez baliatzearen alde agertu da. “Fiskaltasunak –adierazo dauenez– bizkaitarren zerbitzura egon behar dau”. Bizkaiko Talde Popularraren bozeroaleak adierazo dauenez, beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren inguruan dagoan enpresa publiko sarea murrizteko plana. Bere berbaldia amaitzeko, osatuko dan foru gobernuak martxan jarriko dituan gizarte politiken ardatza personak izan behar dirala azpimarratu dau.

KONBIDAUAK

Unai Rementeria hautatzeko ekitaldiak Bizkaiko gizartearen ordezkariak zabala ekarri dau Gernikaraino. Konbidauen eserleketan politika arloko ordezkariak egon dira, Andoni Ortuzar (EAJ-PNV), Itsaso Atutxa (EAJ-PNV), Maribi Ugarteburu (EH-Bildu), Nico Moreno (EH-Bildu), Idoia Mendia (PSE), José Antonio Pastor (PSE), Roberto Uriarte (Ahal Dugu), Nerea Llanos (PP) eta Antón Damborenea (PP). Juan Mari Aburto Bilboko alkatea; Amaia del Campo Barakaldoko alkatea; eta Imanol Landa, Getxoko alkatea be bertan egon dira. Ekitaldian enpresa arloko ordezkariak be egon dira, Asier Atutxa (Bilboko Portu Agintaritza), Iñaki Garcinuño (Cebek), Fernando Olmos (Cebek) edo Fran Azpiazu (Cebek), beste batzuen artean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Unai Rementeria, elegido Diputado General de Bizkaia

GERNIKA, a 1 de julio de 2015

El candidato del grupo juntero Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, Unai Rementeria, ha sido elegido hoy miércoles Diputado General de Bizkaia gracias al apoyo de 29 apoderados y apoderadas de las Juntas Generales, los que suman su grupo parlamentario y el de los Socialistas Vascos. El candidato de EH Bildu, Josu Unanue, ha obtenido los 11 votos de su grupo, mientras que los 6 representantes de Podemos y los 4 del PP han votado en blanco.

Tras la votación, ganada en primera vuelta, la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, ha procedido a proclamar a Unai Rementeria máximo responsable del Gobierno foral durante los próximos cuatro años. El Diputado General saliente ha hecho entrega a la Presidenta de las Juntas Generales de la aginte-makila. A continuación, la Mesa de las Juntas Generales y el Diputado General elegido, precedidos por dos “maceros”, han salido al exterior de la Casa de Juntas. El Diputado General de Bizkaia ha jurado ante los Fueros colocados sobre la mesa de marquetería de la Casa de Juntas, siguiendo el juramento tradicional utilizado por el Lehendakari Agirre: “Jainkoaren aurrean apalik Bizkai-lur gainean zutunik Asaba gomutaz Gernikako zuhaitzpean neure agindua ondo betetzea zin dagit”.

Otadui ha hecho entrega en el templete de la aginte-makila a Unai Rementeria y se ha dirigido a él junto al Árbol de Gernika. “Zuganetzen dozun erantzunkizuna ohorez eta zintzotasunez beteko dozula badakigu. Beraz, hartu egizu aginte-makila hau zure karguaren ezaugarritzat”, le ha dicho la presidenta de la Cámara vizcaína al quinto Diputado General de la democracia. Sustituye en el cargo a José Luis Bilbao, quien ha gobernado el Territorio durante los últimos doce años, dejando atrás las etapas de José María Makua, José Alberto Pradera y Josu Bergara.

Los dantzaris Mikel Bilbao y Leire Requero a los sonos de los txistus de Angel Gondra y Pili Ruiz y del grupo de txistularis de Mundaka han interpretado un agurra en el interior del hemicycle.

GOBIERNO FORAL

Tras recibir el bastón de mando, el Diputado General ha anunciado a su equipo de gobierno que estará formado por Ibone Bengoetxea, Diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales; José María Iruarizaga, Diputado de Hacienda; Lorea Bilbao, Diputada de Cultura y Euskera; María Teresa Laespada, Diputada de Empleo, Inserción Social e Igualdad; Vicente Reyes, Diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio; Isabel Sánchez Robles, Diputada de Acción Social; Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Ambiente; e Imanol Pradales, Diputado de Desarrollo Económico y Territorial.

INTERVENCIONES



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La sesión plenaria, que se ha desarrollado entre esta mañana y la tarde en el salón de plenos de la Casa de Juntas de Gernika, ha comenzado a primera hora de la mañana con la intervención de los candidatos: Unai Rementeria y Josu Unanue.

Rementeria ha presentado el inicio de una nueva etapa en una legislatura que arranca en paz y comprometida en recuperar la dignidad de la política con otra forma de hacer y comportarse. “Hoy comenzamos un viaje sin retorno hacia una nueva Diputación más moderna, cercana y transparente. El viaje hacia el cambio”, según ha señalado.

En la sesión de investidura, ha expuesto que asume con empeño el desafío de reactivar la economía, promover la creación de empleo de calidad y crecer de forma sostenible. El jeltzale ha reconocido que el empleo es el gran reto de la sociedad vizcaína y ha destacado que la Diputación acompañará, arropará y facilitará las decisiones que permitan generar puestos de trabajo. “Bizkaia –ha subrayado- ofrece estabilidad y certidumbre frente a un entorno cuando menos agitado. Bizkaia es estabilidad en estado puro. Y será estabilidad por muchos años. Ofrezco esa estabilidad y toda la colaboración institucional”.

Rementeria ha anunciado que el nuevo gobierno presentará a las Juntas Generales un minucioso plan de legislatura que detalle las iniciativas de la Diputación, tanto en contenido como en plazo. Un plan que contará con una evaluación anual y al final de la legislatura.

El candidato de EH Bildu, Josu Unanue, que ha contado con el apoyo de 11 apoderadas y apoderados ha presentado ante el pleno los puntos cardinales de su acción política: “la cohesión social como objetivo prioritario, las políticas sociales como herramienta, la fiscalidad como espejo de este compromiso social y la capacidad de decisión como garantía de nuestra acción”. Para ello, ha dicho, EH Bildu establece cuatro núcleos, cuatro fundamentos de acción: “política social, empleo y desarrollo, modelo fiscal, y transparencia y participación”.

Unanue ha defendido que es hora de acabar con la masiva subcontratación de los servicios públicos, política que en su opinión ha llevado hasta ahora la Diputación de Bizkaia. “Esta es la única manera de garantizar servicios de calidad y condiciones laborales dignas para las personas trabajadoras del sector”.

El candidato de EH Bildu ha señalado que para aquellos temas cuya importancia para Bizkaia así lo requiera “no tendremos ningún problema en abordarlos con consultas populares”.

Por su parte, Carlos Totorika, portavoz del Grupo Socialista, ha argumentado su apoyo al candidato jeltzale manifestando que “en una sociedad como la actual, con tantos aspectos, matices y singularidades que atender, entendemos que es necesario huir de planteamientos cerrados y absolutos para favorecer el diálogo para el acuerdo democrático en paz y libertad”. “Los Socialistas deseamos que a partir de hoy también se abra verdaderamente una nueva etapa política en Bizkaia. Una etapa que contribuya a hacer realidad la superación de la crisis económica y empleo, así como un mayor equilibrio comarcal y un pleno y efectivo desarrollo competencial”, ha señalado.

Para Podemos, grupo que se estrena esta legislatura en la Cámara, Bizkaia tiene un problema de transparencia. Neskutz Rodríguez, su portavoz, ha propuesto que a cada proyecto público de obra, además del presupuesto, se acompañe un documento de ejecución donde figuren el coste final de la obra, incluyendo los proyectos complementarios asociados a la misma. Rodríguez ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

señalado que “transparencia es someter el desempeño de los gobernantes al escrutinio de los ciudadanos”. Asimismo, ha expuesto que durante los próximos cuatro años van a redoblar la apuesta por lo público y a favorecer un modelo económico orientado al bien común.

El PP, en boca de su nuevo portavoz en las Juntas Generales, Javier Ruiz, ha señalado que es hora de aplicar políticas fiscales de estímulo. En este sentido, se ha mostrado partidario de aprovechar los instrumentos que ofrece el autogobierno. “La fiscalidad –ha señalado- debe estar al servicio de las vizcainas y de los vizcainos”. El portavoz del Grupo Popular Vizcaíno ha expuesto que es necesario un plan para reducir el entramado empresarial público en torno a la Diputación Foral de Bizkaia. Para finalizar su intervención ha destacado que las personas tienen que ser el eje de las políticas sociales que ponga en marcha el futuro gobierno foral.

INVITADOS

La investidura de Unai Rementería ha atraído hasta Gernika a una amplia representación de la sociedad vizcaína. En la bancada de invitados se encontraban representantes del ámbito político como Andoni Ortuzar (PNV), Itsaso Atutxa (PNV), Maribi Ugarteburu (EH-Bildu), Nico Moreno (EH-Bildu), Idoia Mendia (PSE), José Antonio Pastor (PSE), Roberto Uriarte (Podemos), Nerea Llanos (PP) y Antón Damborenea (PP). También han asistido el alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto; la alcaldesa de Barakaldo, Amaia del Campo; y el alcalde de Getxo, Imanol Landa. Asimismo, han presenciado en directo el pleno de investidura representantes del ámbito empresarial como Asier Atutxa (Autoridad Portuaria de Bilbao), Iñaki Garcinuño (Cebek), Fernando Olmos (Cebek) o Fran Azpiazu (Cebek). Del mundo universitario ha asistido el rector de la Universidad del País Vasco, Iñaki Goirizelaia.